

#BILBAOGABONAK EKIMENA ARRAKASTATSUA IZAN DA BESTE BEHIN HIRIA DINAMIZATZEKO PROIEKTU GISA, BERRITASUNAK ETA HERRITARREN PARTE HARTZE HANDIA IZAN DIREN GABON HAUETAN

- Gabonetako Azokak, eta Casilda Iturrizar Parkearen inguruan antolatutako doako programazio osoak, argi- eta soinu-tunelarekin batera, publiko ugari bildu du, eta ekimen horiek Bilboko Gabonetako gune nagusietako bat bihurtu dute eremua. Horiez gain, izotz-pista eta -txirrista, Areatzako kaian eta Erripako kaian jarritakoak, izan dira beste behin erakargune nagusiak eta 52.500 lagunek baino gehiagok hartu dute parte.

(Bilbon, 2026ko urtarrilaren 9an). - **Bilboko Udalak** antolatutako **#BilbaoGabonak** ekimenak, berriro ere, martxan jarritako proposamen eta jarduera guztien harrera ona berretsi du, eta Gabon-egunetan hiria **merkataritza, aisialdi eta kulturaren** erreferentziazko toki bihurtu da, bai bilbotarrentzat, bai bisitariarentzat. Adin guztietarako kultura eta aisialdi arloko ekimen ugariak merkataritza-eskaintzak **Bilbo Gabonez gozatzeko toki erakasgarri gisa sendotu** dute.

Aurten Gabonetako Azokaren inguruan berrikuntza ugari txertatu dira. Azokak abenduaren 5ean ireki zituen ateak, 35 posturekin, aurreko edizioan baino 9 gehiagorekin, eta **kokaleku berriarekin: Casilda Iturrizar Parkean izan baita. Gune hori hiriko erakargarri nagusietako bat bihurtu da, eta bertan publiko ugari bildu da.** Parkea *Baso Magiko* bihurtuta, eremu hori **#BilbaoGabonak udal-proiektuaren gune erakargarrienetako bat izan da**, merkataritza-eskaintzaren bidez Gabonetako salmentak sustatuz.

Hauek izan dira 2025/2026ko Bilboko Gabonetako Azokan parte hartu duten **saltokiak**: Basalar, Princess Courts, Enara Artesanía, Kiliken, Insphyria, Bilbo Dulce Salado, Kaoticat, Mendimarket Gourmet, Accesorios Oli, La Tallerteka, Vintique, Kai denda, Delitxia, Bindi Bisutería, El Gallo de Oro, Cookies & Bites, Bazar Rif, Nahiarte, Arce Bilbao, Lakarola Kintana, Fefa, Karola Kosmetika Naturala, Flores para Venus, Txikito, Ker Fatou, Polvorones Solokoetxe, Castroflor, Bella de Triana, Alimentación Iraiza Productos Delicatessen, Tu Bola de Navidad, Pabús Bijoux, Nyumbani World, Ositos con Alcohol, Andrea Nieto Jewels, N de Noa eta Ibilaldia 2026ko etxola. Halaber, azpimarratzekoa da Gabonetako Azokaren eta iturri zibernetikoaren inguruan txertatutako **food truck-en arrakasta** ere (*Food Truck Kmzero Basque Truck eta Zutarri etxola*).

Gainera, **Casilda Iturrizar Parkeko Baso Magikoan** antolatutako doako jarduera **guztiek, batez ere haurrei eta familiei zuzendutakoek, pertsona ugari erakarri dituzte**: *Desioen Postontzia*, *Gabonetako Arcade-jokoak*, parkeko pergolaren ondoan eskainitako zuzeneko musika —musika-ikasleek eta talentu gazte ez-profesionalek eskainia—, bai eta iturri zibernetikoko argi-ikuskizuna, *“El secreto de la Navidad / Gabonetako sekretua”* antzezlanaren emanaldiak eta Aitor Álava dantzariaren eskutik eskainitako euskal dantzen erakustaldiak ere; jarduera horiei esker, Casilda Iturrizarreko eremua **publiko guztientzako Bilboko Gabonetako erreferentzia-gune nabarmenetako bat bihurtu da**.

Horri guztiari hiriko argiek eskainitako xarma gehitu behar diogu: **argi eta soinuaren tunela** eta arratsaldetan eskainitako emanaldi musikalak, **Moyuako zuhaitz handia**, Areatzako zuhaitz urrezatuak....

Beste behin ere, **izotz sintetikozko pista eta txirrista** (berriro ere Erripako Kaian eta Areatzako kaian jarri dira), izan dira erakargarritasun maiteenetako batzuk eta 52.500 pertsona inguru bildu dira horietan. Berritasun gisa, premia bereziak dituztenentzako paseak eta patinaje-pistan gaueko paseak aktibatu dira, publiko gazteagoari zuzenduta.

SARE SOZIALAK: #BilbaoGabonak #MePidoBilbao

- BILBOKO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO EKINTZA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO KULTURA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBOKO JAIK: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBO TURISMOA: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

#BILBAOGABONAK REAFIRMA SU ÉXITO COMO PROYECTO DINAMIZADOR DE LA VILLA, EN UNA NAVIDAD CON NOVEDADES Y GRAN PARTICIPACIÓN CIUDADANA

- El Mercado Navideño y toda la programación gratuita planteada en el entorno del Parque de Doña Casilda, junto al túnel de luz y sonido, ha registrado gran afluencia de público convirtiendo esta nueva ubicación en uno de los puntos neurálgicos de la Navidad en la Villa. Junto a ello, la pista y el tobogán de hielo, instaladas en el Muelle del Arenal y en el Muelle de Ripa, han vuelto a ser uno de los grandes atractivos con la participación de más de 52.500 personas.

(Bilbao, 9 enero 2026).- El proyecto #BilbaoGabonak, organizado por el Ayuntamiento de Bilbao, ha vuelto a ratificar la buena acogida de todas las propuestas y actividades puestas en marcha, convirtiendo la ciudad en un lugar referente de **comercio, ocio y cultura** durante las fechas navideñas, tanto para la ciudadanía bilbaína como para las personas visitantes. Las numerosas iniciativas culturales y de ocio para todas las edades y la oferta comercial, han venido a **consolidar Bilbao como un destino atractivo donde disfrutar de la Navidad**.

Todas las novedades incorporadas este año en torno al Mercado Navideño, que abrió sus puertas el pasado 5 de diciembre con 35 casetas, -9 más que la edición anterior- han hecho **que esta nueva ubicación en el Parque de Doña Casilda se afiance como uno de los principales atractivos navideños de la Villa donde se ha registrado gran afluencia de público**. Con el parque transformado en un *Bosque Mágico*, **se ha erigido en uno de los puntos neurálgicos más atrayentes del proyecto municipal #BilbaoGabonak**, fomentando las ventas navideñas a través de su oferta comercial.

Estos han sido los **comercios** que este año han participado en el Mercado Navideño 2025/2026 de Bilbao: Basalar, Princess Courts, Enara Artesanía, Kiliken, Insphyria, Bilbo Dulce Salado, Kaoticat, Mendimarket Gourmet, Accesorios Oli, La Tallerteka, Vintique, Kai denda, Delitxia, Bindi Bisutería, El Gallo de Oro, Cookies & Bites, Bazar Rif, Nahiarte, Arce Bilbao, Lakarola Kintana, Fefa, Karola Kosmetika Naturala, Flores para Venus, Txikito, Ker Fatou, Polvorones Solokoetxe, Castroflor, Bella de Triana, Alimentación Iraiza Productos Delicatessen, Tu Bola de Navidad, Pabús Bijoux, Nyumbani World, Ositos con Alcohol, Andrea Nieto Jewels y N de Noa, además de la caseta de Ibilaldia 2026. También cabe destacar el **éxito de las food trucks** (*Food Truck Kmzero Basque Truck* y *Caseta Zutarri*), incorporadas en el entorno del Mercado Navideño y la fuente cibernética.

Además, todas las **actividades gratuitas diseñadas en el Bosque Mágico del Parque de Doña Casilda, dirigidas sobre todo al público infantil y familiar, también han atraído a multitud de personas**: el *Buzón de los Deseos*, los *Arcades Navideños*, la música en vivo de jóvenes talentos y estudiantes de música no profesionales junto a la Pérgola del Parque, así como el espectáculo de luz de la fuente cibernética, las interpretaciones de la obra de teatro *“El secreto de la Navidad / Gabonetako sekretua”*, las exhibiciones de danzas vascas con el dantzari Aitor Álava... han permitido a la zona de Doña Casilda convertirse en uno de los puntos de referencia más concurridos de la Navidad bilbaína para todos los públicos.

A ello hay que añadir los atractivos luminosos navideños en la ciudad como **el túnel de luz y sonido** con sus pases musicales vespertinos, **el gran árbol de Moyua**, los árboles dorados del Arenal....

Nuevamente, la **pista** y el **tobogán de hielo sintético**, situados en el Muelle de Ripa y el Muelle del Arenal, han vuelto a ser una de las atracciones más visitadas con la participación de en torno a 52.500 personas. Como novedad, en esta ocasión se han activado pases para personas con necesidades especiales y pases nocturnos en la pista de patinaje, dirigidos a un público más joven.

REDES SOCIALES: #BilbaoGabonak #MePidoBilbao

- BILBAO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO EKINTZA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO KULTURA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO JAIK: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO TURISMO: [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)